

## →MEREKANTUAREN SEGMENTAZIOA

Gure proiektua herrietako enpresa txikiei dago zuzenduta. Hau da, gure xede publikoa enpresa txikietako jabeak dira. Aurretik aipatu bezala, sortutako proiektuaren helburu nagusietako bat, bizitzen ari garen egoeraren aurrean kaltetuagoak izan diren komertzioei baliabide bat ematea da, kasu honetan, herri txikietako arropa denda txikiei interneten bidezko salmentan berrikuntza bat eskaintzea.

Sortutako proiektua enpresa txikiei eskaintzeko erabakiak hainbat arrazoi deserdin ditu, gure proiektuaren helburu eta baloreekin guztiz bat datozenak.

Arrazoi bat, enpresa handiekin alderatuz saltzerako orduan eta beraien produktuak ezagutzera eramaterako orduan dituzten desabantail handiak dira. Horretarako, interneten bidezko salmenta oso tresna baliagarria da, eta denda txikiek ez dekier horrelako baliabiderik. Beraz, interneten bidez saltzeko aukera emateaz gain, oso erabilgarria den berrikuntza bat emateak aukerak asko zabalduko litzieke beraien salmentak handitzerako orduan. Jendea ez da derrigorrez dendara hurbildu behar, interneten bidez eskuratuko lukeelako arropa eta frogatu ere.



Beste arrazoi bat, beraien lan egiteko modua da. Gure proiektuaren beste helburuetako bat arropa frogatu ahal izatearen bidez eta horrela itzulpenak saihestearen bidez kutsapena murriztea denez, beraien lan egiteko modua gure pentsatzeko moduarekin eta helburuekin bat etorriko litzateke. Denda txikietan produktuak eskuz edo inguru egokiagoetan produzitzen dituzte eta gainera pestizida gutxiago erabiliz eta textil hobeagoekin. Beraz modu honetan, beraien produkzio motarekin,

kutsadura murrizten lagunduko lukete, batez ere enpresa handiekin alderatuz.

Enpresa txikiek dituzten bi ezaugarri horiek, guztiz bat datoz gure proiektua sortzean finkatu genituen bi helburu nagusirekin, eta horregatik batez ere iruditu zitzaigun erakargarria gure proiektua enpresa txikiei eskaintzea.